

Gure enpresa insomnioarekin zuzenki lotuta dagoenez, gure bezeroak arazo hori pairatzen duten horiek dira. Lo egiteko zailtasunak dituzten haurrak zein helduei bideratutako zerbitzuak eskeintzen ditugu. Espainia osoan, 5,4 milioi dira transtorno edo arazo hau pairatzen dutenak; gure zerbitzuak haiei guztientzat bideratuta daude, adina zein generoari garrantziarik eman gabe. Nahiz eta haurren kasuan insomnioa izateko probabilitatea helduena baino baxuagoa izan eta haien gorputza helduenarekiko oso ezberdina izan, haientzat ere bideratuta daude gure tratamendu, produktu, zein terapiak; izan ere, ez dugu osasuna mintzen duten kimikorik eskaintzen. Haurdunei zein gaixotasunen bat dutenei ere eskaintzen dizkiegu gure zerbitzuak, beti ere, Espainia barruan. Gure zerbitzuak bi segmentu nagusietan banatzen dira: batetik, lokala fisikoki bisitatzen dutenak eta gure zerbitzuak bertan eskuratzen dituztenak; eta bestetik, internet bidez, hau da, aplikazio edo web orriaren bitartez eskuratzen dituztenak. Gainera, gure eskaintza bezeroaren ezaugarrietara dago egokitua; are eta gehiago, hurrei egokitutako terapia, pilula, infusio bereziak sortu ditugu, helduenengandik desberdinduz. Horrenbestez, gure zerbitzuak probetsu gehiago atera ahal izango dituzte.